

Herri nortasunen arteko lankidetzaz berria

Hutsune bat, horixe Garabide proiektuaren abiapuntua: euskal kooperazioa ohiko kooperazio bihurtu eta euskal izaera eskaintzen ez jakitea. Eta behar bat: degradazio sozioekonomikoa, herrien nortasunaren gainbehera eta naturaren suntsipena elkarrekin ulertu eta kooperazioa gai sozioekonomikoetatik beste alorretara ere hedatzea. Are gehiago, munduko komunitate askotan nortasun galeraren une erabakiorra bizi dugunean.

LIERNI ALKORTA



Une honetan kinka larrian dauden herri indigenei ekarpena egiteko asmoarekin sortu da Garabide Elkartea.

EUSKARA ETA EUSKAL esperientzia hartu ditu ardatz Garabide Elkartek “une honetan desagertzearen eta garatzearen arteko amildegian dauden herri indigenei” ekarpena egiteko asmoarekin. Kooperazio sozioekonomikotik harago herrien nortasunaren eremuan laguntzeko xedea du. Elkartearen arabera herri

horiek funtsean jokatzen ari direna ez da kooperatiba bat gehiago edo gutxiago, eskola bat gehiago edo gutxiago, euren herrien eta komunitateen nortasunaren eta hizkuntzaren biziraupena baizik.

Idea horretatik abiatuta, oraindik eraikitzen hasteke dagoen zubiaren lehen harria jarri du euskalgintzan

eta garapenerako lankidetzan –Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultatean, Mundukiden, Ikastoletan eta Arrasateko mugimendu kooperatibistan– dabilzan hainbat eragilek sustaturiko Garabide Elkartek. Euskalgintza deritzon mugimenduak lan ugari egin eta aurrerapauso anitz eman ditu, batez ere, azken 40 urte-

Hurbiletik ezagutu eta harremanak estutzeko, azaroan Euskal Herrira

Azaro aldera egingen da proiektuaren punturik erakargarriena izango den Esperientzien Truke Programa. Elkarren aberasgarri eta elkarrengandik hurbil, Euskal Herrian bertan, hegoaldeko herri indigenek beraien hizkuntzarekiko eta identitatearekiko dituzten bizipenak geureratuko dituzte, eta aldi berean Euskal Herriko esperientziatik edan. Horretarako, komunitate maia, kitxua, aimara eta bubietatik heldutako bederatz bi bizi-tari jasoko dituzte Garabidekoek.

Debagoienan (Gipuzkoa) igaroko dituzten hiru asteetan, jarduera ugari izango dituzte bisitariek. Formakuntzari loturik, Garabideren eskutik, gai bakoitzeko adituek formazio saioak emango dizkiete, besteak beste, soziolinguistika, hizkuntza ekologia, prozesu identitario, hezkuntza eredu eta hizkuntza normalizazioari buruzko saioak. Era berean euskalgintzaren errealitatearen eta antolaketa-aren ezagutza jasoko dute, bisita, elkarriketa eta materialen azterketaren bidez. Sail horretan, eta oraindik guztia zehazteke badago ere, besteak

beste, Goiena, EKT, Emun, Elgetako Kafe Antzokia, EiTB, Euskaltzaindia, Ikastolen Federazioa eta AEK bisitatu dituzte.

Horrez gain, partehartzaileek, batez ere Mondragon Unibertsitateko ikasleei eta euskalgintzako eragileei hitzaldiak eskainiko dizkiete, baina baita herritarrei ere. Era berean, proiektu posibleak sortu daitezkeen euskalgintzako eragileekin harremanak sortu eta etorkizunera-ko truke bideak topatzen ere sai-utuko da alde bakoitza. "Elkarlan eredu hau bultzatzeko inork arrazoi eta aukerarik badauka, horiek gu gara. Zer eskainia daukagulako eta ikaste-ko beharra daukagulako. Horretan ahaleginduko gara", diote Garabide-ko ordezkariak.

Asteburuetan, Euskal Herriko txoko eta bazterrak ezagutzeko parada ere izango dute gainera. Bidenabar, ikasleen nahiz unibertsitateko kideen eta bisitarien arteko harremanak estutu eta truke pro-grama beste eremu batzuetara ere hedatu ahal izango dute.

tan. Oraindik bizirik daude garai hartako hainbat erakunde eta prota-agonista eta "altxor" hori baliatzea dute asmo.

Hiru helburu nagusi finkatu ditu Garabidek. Lehenik, garapen bidean dauden herrietako hizkuntza komu-nitate minorizatuarekin lankidetz-a bideratzea, euskara eta euskal kultu-raren garapen esperientzien trukean oinarrituta. Bigarrenik, munduko hego hemisferioko hizkuntza komu-nitate minorizatuarekin eragileekin lankidetz-a proiektuak garatzea. Lan-kidetz-a proiektu hauek hizkuntza-

ren, kulturaren eta nortasunaren garapen-alor desberdinetan gauzatu-ko dira, hezkuntzaren alorrean indar berezia jarritz. Eta, azkenik, euskara-ren eta euskal kulturaren garapenean lanean ari diren erakundeek Hegoal-deko hizkuntza komunitate minori-zatuarekin lankidetzarako beren esperientzia eskain dezaten susta-tzea, horretarako markoa eta bideak eskainiz.

Helburuak ez dira, ordea, berez betetzen, eta hori dela eta zenbait proiektu ditu eskuartean Garabidek. Formazio eta kapazitate proiektu-

Hegoaldeko herri
indigenetako eragileak
ditu lankide Garabidek,
bereziki euren nortasuna
garatzeko proiektuetan
dabilzanak

tuak, esperientzien truke-programak, aholkularitza proiektuak, tutorizazio proiektuak eta interkooperazio siste-ma propio honen ikerketa eta gara-pena. Aurrez, euskalgintzaren espe-rientziaren ikerketa, didaktifikazioa eta zabalkundea gauzatuta, noski.

Maiekin, kitxuekin eta uruekin

Hegoaldeko herri indigenetako era-gileak ditu lankide Garabidek, bere-ziki euren nortasuna garatzeko proiektu zehatzetan dabilzan bitar-tekari kolektiboak. Direla herri indi-genetako hezkuntza erakundeak, gizarte nahiz kultur erakundeak, era-kunde publikoak eta baita erakunde politiko propioak ere. Oraingoz, dena den, Hego eta Erdialdeko Ame-rikako herri indigenekin dihardute batez ere lanean, maiekin, kitxuekin, aimarekin eta uruekin bereziki. Hiz-kuntza gisara gaztelania konpartitza eta lanerako eskaera gehien bertatik jaso izana dira horren arrazoi. Dena den, Afrikara ere begiratzen dute eta bertako bubien komunitatearekin ere lankidetzan ari da Garabide.

Baina lankidetzarik ez da Euskal Herrian bertan kooperaziorako prest dagoen eragilerik ez bada. Horren-beste, besteak beste, hezkuntza sareak, estrategia mailako eragileak, hedabideak eta kulturgintzako era-kundeak ere lankide izango ditu Garabidek. Zubia eraikitzen hasita dago dagoeneko, gero eta luzeago eta zabalago egin behar orain ■

Babeslea: Emun



HIZKUNTZA AHOALKULARITZA ETA EUSKARAZKO ZERBITZUAK:

- Enpresa eta erakundearen premiei egokitu-tako euskara planen kudeaketa
- Itzulpenak
- Euskara formazioa

Uriburu, 9 behea 20500 Arrasate Tel. 943 711 847 • Martin Ugalde Kultur Parkea 20.140 Andoain Tel.943 300 978
emun@emun.com • www.emun.com